

aik
txarriko

2009ko urtarrila

78. zenbakia



Pedro Mari Goikoetxea, kazetaria

Kamaren arteko bizitza

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabretzuko Herri Ikastetxea
Tel.: 911 558 172
Faxa: 944 558 172



Zamudiako Herri Ikastetxea
Tel.: 911 520 826
Faxa: 944 521 349



"Ixonienri" R II 1 (Larria)
Tel.: 911 513 258
Faxa: 944 543 262



"Gorostegine"
Herri Ikastetxea (Gomikoi)
Tel.: 944 531 070
Faxa: 911 531 070



Deriako Herri Ikastetxea
Tel.: 911 541 216
Faxa: 944 541 216



Lemakuko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 55 119
Faxa: 944 555 161


MATRIKULA
Otsailaren 2tik 13ra

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Hegalariak areto-futbol taldea, Arroeta mendi taldea, Alexander Muela, Sabin Arana, Xabier Díaz, Oihana Astobieta, Belen Gana, Inés Serrano, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IKERKETA BULBARRA
IKERKETA BULBARRA



diruz lagundutako aldizkaria

30 Bertoko elkarteak



22 Sabel-dantza ikastaroa



26 Zamudioko liburutegia, saritua



12 Txan magoa



24 Bizigune Zabal egitasmoa



AURKIBIDEA

- 4Eritxia 6Laburrak eta albisteak 12Gurean izan da...
Txan magoa 13Gaztea eta... Maider Yuste
15Behargintza, publie-reportajea 22Sabel-dantza
ikastaroa 24Bizigune Zabal proiektua
26Zamudioko liburutegia, saritua 28Amador
Ramos ipuin kontalaria 30Bertoko elkarteak
32Txorierri ezagutu 33Teknologia
34Musika 35Antxinako argazkia
36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda



AIKOR! eta Euskalerria aldizkaria



JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Idazlea)

AIKOR! aldizkariak euskaltzaleak batzen ditu, batzen zituan moduan Jose Manterolak *Euskalerria* aldizkariaren bitartez -1880an hasirik-. Era horretara lortu eban koordinatzea euskaltzaleen lan sakabanatua. *Euskalerria* aldizkariari esker -inguruan hainbeste euskaltzale baturik- aurrerakada itzela ezagutu zan euskal kulturen.

Jakina da, euskalduna Txorierri lako eskualdeetan bakanduta bizi dana; askotan

euskaraz bizi dan lagun-aldra barik.

Halako bakartiak bizitza euskaldun egiteko, nora jo topau gura dau, nogaz hartu-emonak euki. **AIKOR!** aldizkariak euskal sarea eskaintzen dau, lotura txorierriarren artean.

Izango da inor uste dauenik **AIKOR!** ez dala nahiko. Ulertzeko kritikea, arrazoizkoa! Horren aurrean, seguru asko, jokabiderik aberasgarriena, dagoan baserria eraitsi baino, hobia aldamenean eregitea izan leiteke ze, ez legoke gure artean mozorik, etxe hobia alboan eukita txabola itogindunean biziko leitekeenik. Bestalde, inondik inora ez litzateke ganorazkoa, egoitza barria jaso baino lehenago, artekoa lurrera botatzea.

Ganera, edonor da nor baieztatzeke Txorierri euskaldunerako egin izan dana baino askoz gehiago dala eginkizun doguna. Bete doguz zidarrezko ezteguak esperientziak nahiz esperantzak irakaskuntzan jarririk. Behin honezkero, badakigu zertaraginoko emaitzak ekarri deuskuzan, noraino heldu garan. Behar-beharrezkoa izan da -eta izango- eskola-ikastola-ikaste-

txe-euskaltegietan jorrari ekitea, ez, ostera, nahiko. Zein adibide agirikoagorik, hainbeste irakaskuntza munduko andra-gizon **AIKOR!** aldizkariaren inguruan lanean aurkitzea baino?

Egoerak, bestalde, aldatuz doaz, migrazioak eta inmigrazioak inguratutik bizi gara, herri, auzo, etxebizitzetan, lineako autobusetan. Aspirinek ez leikie izurritea menpean hartu. Gaurko ingurumarian, euskaldunok agintea behar dogu eskuan, pentsakera euskaltzalea gogoan. Euskaltzaleak ezinbesteko doguz politikan -zenbat erdaldun eta erdarazale karguetan!-; euskaltzaleak nahitaezko etxeko telebista aurrean -zenbat erdara goxo familia aber-tzaleetan!-; euskaltzaleak edozein ekintza-tan.

Jakingo dozu euskara, maiteko dozu nonor bihotzaren sakonean, baina esaten ez badozu edo erakutsi, zertarako?

1880ko *Euskalerria* aldizkaria lez, XXI. gizaldiko **AIKOR!** -mutatis mutandis-, itze-lezko aurrera pausua da, kolore, izakera, jokabide askotako euskaltzaleak baturik!

Aldeko izan bekigu 2009 hasi barri hau!

There's probably no god

Holakorik ikusteko ere! Antza, publizitate hori dutela dabilta Britainia Handian betiko autobus gorriak. Jainkoari beldurra galdu diote nonbait. Fededun zintzoei aurre egiteko kanpaina bat abiatu zen interneten bidez. Dirua batu dute, eta horrekin ordaindu dituzte autobusotan lotsagabe darabiltzaten kartelak.

Txarrena da beste leku batzuetan ere gauza bera egitea bururatu zaiela, eta Bartzelonan *autobus ateu* deitutakoa asmatu dutela. Lelo bera erabiltzen ari dira, baina katalanek katalanez, noski.

Gaur egun daukagun kezkarik handienetarikoa da epidemia hau nola gel-

ditu. Duela urte gutxi batzuk di-da batean egingo zitzaion aurre gaixotasun honi: kanpainaren arduradunak, kartzelara; gainera, eskumikatuta; laguntzaileei, kolaborazio delitua leporatu eta -badakizue- sei urtetik gorako espetxealdia. Halakoen aurrean har daitezkeen neurriak, berriz, horrenbeste epeldu direnez gaur egun... ez dakigu, bada, zer egin daitekeen.

Dena dela, oraindik ez dut esperantza galdu. Aitorren hizkuntzan idatzita holakorik ikustea zail gertatuko da. Atzerrian holako beste batzuk sarri gertatu badira ere, euskaldunon arima garbi mantendu izan da. "There's pro-



IÑAKI ASTORKIZA
(Irakaslea)

bably no god. Now stop worrying and enjoy your life" idatzi dute britaniarrek. Ikusiko ote dugu "Segur aski ez dago jainkorik. Utzizu kezkatzeari, eta gozatu bizitza"? Hala bedi. Hamen.

ELDEKONE FRUTEDONDA
Frutas seleccionadas y naturales
Envasadas al vacío y congeladas a -18 °C para máxima vida.

aldeko ne
hartz klinika
TEL: 949 454 15 07

Anuska Prieto Aguilar
Odontóloga

Unidad de
odontología
-Especialidades:
odontología

elkote
Elkote, el deporte de la vida.

1.º MAG. MAGALAN, 1990-1991
Magalana "Elkote"
Magalana "Elkote"
Magalana "Elkote"
Magalana "Elkote"

Magalana "Elkote" 1990-1991

Lehenengo 100 etxebizitza babestuak eman dira Derion

Lander Aiarza Derioko alkateak Landabari egoitza-sektoreko 100 etxebizitza babestu eman ditu urtarrilean. Etxebizitzak Ganche auzoan daude eta zozketa duela urte bi egin zuten. Jabeei urtarrilean eta martxoaren zehar emango zaizkie giltzak.

Landabari proiektuak 118.758 metro karratuko azalera du eta 693 etxebizitza edukiko ditu guztira. Haietako 322 etxebizitza kolektibo babestuak izango dira eta 346 salmenta libreko etxebizitza kolektibok. Era berean, 18 txalet atxiki eta 7 txalet bakar altxatuko dira. Aiarzak azaldu zuen bezala, gainontzeko etxebizitza babestuak aurtengo zozketatuko dira: 76 martxoan eta 98 urtearen amaieran, hain zuzen ere.

Horrezaz gainera, 20.000 metro karratuko espazio libreak hartuko ditu Landabari sektoreak. Euren artean, harizti txiki bat berreskuratuko dela aipatzekoa da.

Etxebizitzak Sukia eraikuntza-enpresak egin ditu. Isolamendu termiko eta akustiko bikoitza dute eta horri esker %20ko aurrezte termikoa izango dute eta %25ean arinduko da aireportuak sortzen duen zarata. Eguzki-plaka termikoak ere jarri dituzte etxeko ura berotzeko.

Errentako etxebizitzak

Beste alde batetik, Derioko Udalak hitzarmena sinatu zuen BBK-rekin, 146 errentako etxebizitza babestu eraikitzeko herrian.

Etxebizitzak Aldekone Goikoa sektorean egingo dituzte, eta gazteei zuzenduta egongo dira. Etxebizitzek 50-60 metro karratuko azalera erabilgarria edukiko dute, baita garaje eta trastelekua ere. Alokairu-

prezioa Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak onartutako alokairuaren gehieneko prezioari buruzko Aginduak ezartzen duena izango da. Etxebizitza horietako bat eskuratzeko baldintzak Etxebideko errentako etxebizitza babestuen kasuan eskatzen diren berberak izango dira. Eskerak egiteko epea datorren urtearen amaieran zabalduko dute, ziur asko.




**LIBRERIA
SONDA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERAK ESKULANAK, E.A.

ARTEA, LINGUA, LITERATURA, MUSIKA, ZINEMAK

Liburuak, liburuak, liburuak, liburuak,
liburuak, liburuak, liburuak,
liburuak, liburuak, liburuak

Milak Zuzenak - Tel: 945 91 199 1000
48100 SONDA (Bizkaia)

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, S.L.

MAKRO ENERGIETAKO

Tel: 94 500 99 33 Fax: 94 471 06 18

48900 SONDA (Bizkaia)

ATARRABI

Libreria de la Universidad de Navarra

Tel: 94 500 99 33

Libreria

Libreria de la Universidad de Navarra

Libreria de la Universidad de Navarra

Libreria de la Universidad de Navarra

Perez eta del Campo sondikarrak, garaiezinak

Faboritoak ziren eta aurreikuspenak bete zituzten. Manu Perezek eta Alberto del Campok osatutako bikoteak irabazi du "Sondikako Udala" IV. Frontenis Torneoa. Sondikarrek 30-17 irabazi zieten Mikel eta Leonardo anaiei.

Perezek eta del Campok txapela lortu duten bigarren aldia izan da oraingoa; are gehiago, aipatu behar da ez dutela ezta partida bat ere galdu. Izan ere, segurtasuna erakusten dute kantxan, sendotasuna, azkartasuna, teknika... eta ezaugarri horiek guztiek garaipena eman diete. Leonardo anaiek ere joko ona egin zuten, baina zaila izan zen txapeldunei irabaztea. Hala ere, gazteagoak dira eta etorkizunean gauzak alda daitezke. Bitartean, itxaron egin beharko dute.

Hirugarren postua Aritza Madariagak eta Rafa Benitok lortu zuten. Hauek 30-21 irabazi zioten Mikel Urkiagak eta Jon Madariagak osatutako bikoteari.

Kepa Loizaga eta Jon Ibarrondo Sondikako zinegotziek garaikurrak

eman zizkieten parte-hartzaileei eta horren ostean, hamaiketakoa egon zen.

Argazkia:
Hegalarriak



LED lanparak jarriko dituzte Lezamako semaforoetan

Lezamako Udalak herriko semaforo guztietako lanparak aldatzen hasi eta horien ordez LED lanpara berriak jarriko ditu. Proiektuak helburu bikoitza du: alde batetik semaforoen argiak hobeto ikusiko dira, eta bestetik energiaren kontsumoa murriztuko da.

LEDa (Light Emitting Diode) intentsitate baxuko korrante elektrikoak igarotzen argia sortzen duen erdieroalea da. Ez du harizpik edo gasik erabiltzen eta ohiko bonbilla gori batek bezain beste argia sortzeko gai da, baina %90 energia gutxiago erabiliz. Argiztapen tradizionalan kontsumitutako energiaren %5 baino ez da argia, eta gainontzeko %95 beroan xahutzen da. LED teknologia duten 10 semafororen bidez 5.400 KW aurrezten dira urtero.

BATXU-GIA - TALOHU-DEINA

Ruben

Lezamako Lezama Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

BAR RAFI

POKALAKO ETXETOKO

Refined Cordon Rosso

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

RAMON

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

Vértigo

CONCEPCIÓN PEREZ PASTOR

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

MARMOLERIA TXORIERRI

MARMOLDEGIA

Sakabide eta bainugeletako harriak fatxada, atariak eta hilerriak

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

OSKARBI

fotografoak

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

El apaindegia

Mª Antonia Lindo

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

LOTTIZEN

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

INIGO RARCFNA

Lezamako Plaza, 11 - Tel: 94 452 14 49

Arreola (Nizkor)

Liliak loradendak irabazi dau Erakusleiho Txapelketea

Urtarrilaren 8an Derioko Erakusleihko Txapelketearen sariak banatu ziran Larrabarni baserrian. Txapelketea Danerik Paraje! Zerbitzu eta Merkataritzako Alkarte Profesionalak antolatu eta berba eta erabakia herritarrek izan dabe.

Herriko hainbat lekutan hautes-ton-tziak jarri ziran eta derioztarrek euren bo-toa itxi eben bertan abenduaren 29tik 31ra bitartean. Herritarren eritxiz, Liliak lora-dendak imini dau politen erakusleihoa Ga-

bonetan. Saria jaso daben beste partehar-
tzaileak honeexek izan dira: Ane ileapain-
degia, Perea estankoa, Mamen mertzeria
eta Soraya ileapaindegia.

Beste alde batetik, alkarteak opari-txe-keak zozketatu dauz botoa emon dabenen artean. Irabazleak honeexek izan dira: Eva Ruiz, 100 euroko opari-txartela; Pilar Santin eta M^a Jesus Montalvillo, 50 euroko opari-txartel bana. Opari-txartelak CAN Kutxak emon dauz.

**Txorierritarrok
udalerrian bertan eska
dezakegu ONA txartela**

ONA txartela osasun-txartel elektronikoa berria da. Osakidetza-erakundeek txartela ordezkatzeko du eta zerbitzu sorta zabalaz baliatzeko aukera ematen digu: anbulatorioan ordua eskatzea, medikua aldatzea eta lan-bizitza edo gidabaimenaren puntuak kontsultatzea, besteak beste.

Osakidetza osasun-txartel indibiduala duen 16 urtetik gorako edozein pertsonak eska dezake. Horretarako, udalerrri bakoitzean jarri den gunera hurbildu eta Osakidetza txartela eta NANA aurkeztu beharko ditu. Txartela leku hauetan eskura daiteke:

Sondikan: astelehen, eguazten eta barikuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, KZgunean.

Loiun: martitzen eta eguenetan,
09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik
19:00etara, KZgunean.

Derion: astelehen, eguazten eta barikuetan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, udaletxean.

Zamudion: astelehen, eguazten eta barikuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, udaletxean.

Lezaman: martitzen eta eguenetan,
09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik
19:00etara, KZgunean.

Larrabetzun: martitzen eta eguene-
tan, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik
19:00etara, Anguleri kultura etxean.

Argazkia: Foto Celso



 **Bocateria
Otarteko
Pizzeria**

ETXERETIK 5 MINUTUko ZERBITZUA eta TXARRIKERI OROKOR
ZERBITZUA

TEL. 91 62 71 10


**Hotels
Jatek és
Aréna**

Teknológiai Parkban - Érdakunizsa, 100
4070 Zalaegerszeg - (Jászberény)
Telefonok: 04-403 08 00
Faxok: 04-403 08 01
e-mail: hotel@arabanka.com
e-mail: reservacio@arabanka.com
www.arabanka.com

ZAMLAND MOTOR

04 452 1610
04 452 1648

(Mal. Terengganu)
(Ked. Kelantan)
KUALA KANGSAR



AMA Labors

ESTILISTA
EVA ARDINES
of AmAr
Estilista: Paula de Araújo (Brasil)
Língua: Inglês, Português
11 Rua Paranaíba, 1.000 - Curitiba - 80070-900
Telefone: (41) 333-104-10 (Paraná e região)



ALBERTA

Environment and Heritage
 Telephone 403-297-2600
 40010 ZAHEDIN (Calgary)

Ez irabazlerik ez galtzailerik Espesoren memorialean

Hegalariai Sondikako areto-futbol taldeak Pedro Espesoren III. Memoriala antolatut eban urtarrilaren 3an. Sondikarrekin batera Decolux Barakaldo eta Gernika Aretofutbol taldeek hartu eben parte Espesoren oroimenezko partidari eta aurreko edizinoetan bezala, oraingo honetan be ez zan ez irabazlerik ez galtzailerik egon. Parte-hartzaile guztiek gogoan euki eben Pedro eta oso une hunkigarriak bizi izan ziran.

Hegalariai taldekoek oso ekitaldi landua prestatu eben. Hiru taldeak eta arbitro biak zelai erdiraino desfilatu eta ohizko argazkiak atera ostean, partidak jokatu ari ekin eutsien. Etxeko taldeak 3-1 irabazi eutsan Gernikakoari.

Taldeei plaka bana emon jaken oroigara



rritzat eta Espesoren emazte eta alabari lore-zentro bat oparitu eutseen antolatzaileek.

Argazkiak: Hegalariai



Zamudioko ondare etnografikoa batuko du Labayruk

Labayru Gaur aldizkarian jakinarazitakoaren arabera, ikerketa-hitzarmena sinatu dute Labayru Ikastegiak eta Zamudioko Udalak. Hitzarmen horren bidez, Zamudioko ondare etnografikoa batu, digitalizatu eta sailkatu egingo ditu ikastegiak. Zamudioztarren eguneroko ohiturak eta udalerriko leku-izenak jaso eta internet bidez jakinaraziko dira hurrengo urte eta erdian.

Labayru Ikastegiak urteotan etnografia eta hizkuntza arloan landu duen metodologia erabiliko du ikerketa egiteko. Lehenengo eta behin, artxibo ezberdinetan dauden dokumentuen informazioa batuko da eta ostean, landa-lana egingo da. Ikerketaren datu esanguratsuenekin fitxak prestatu eta on-line eskigiko dira.

Lezama diruz lagunduko deutse Pereirako proiektuei

Lezamako Udalak lankidetzahitzarmena sinatu dau Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeagaz (GKE). Udalak diru-izendapena aginduko dau urtero Pereirara (Kolonbia), Ahizta Pasiotarrek Garapen Poloan dabari proiektuei laguntzeko. Aurten 7.000 euro emongo dabez eta diruaren zatirik haundiena Emakumearen Gaitasun Zentrora zuzenduko da. Ahizta Pasiotarrek zentro horretan iminitako egitasmoen artean, honeexek aitatu geinkez: jantokia, emakumeentzako gaitasun tailerrak, liburutegia, haurtzaindegia, ekitaldi-aretoa eta aholkularitza zerbitzua. Proiektuek helburu bikoitza dabe: alde batetik, bertako herritarrak euren beharretik bizi ahal izatea eta bestetik, bizimodu duina euki dagiela lortzea.

yadra floristas

Milakaria 1-100 20 Jorrita - Bidasoa
Telefonoa 94-451 11 47 - yadra@floristasbidasoa.com

Goiri 78 S. L.

Servicio Clientes

POL KAZDA
Tfno: 94 451 25 15
94 451 25 21
40150 SOROKA (Bizkaia)

IMBUDO DEVIDO LUPANQUELLESTON

LAURENCE LUPANQUELLESTON
C/ ALFONSO XIII, 10
48940 SOROKA (Bizkaia)
Tel: 94 451 25 15
Fax: 94 451 25 21
E-mail: laurence@lupanquelles.com

SANTI MAMI
C/ ALFONSO XIII, 10
48940 SOROKA (Bizkaia)
Tel: 94 451 25 15
Fax: 94 451 25 21
E-mail: santi@mami.com

GAMINIZ
JATETXEA

www.gaminiz.com

www.gaminiz.com

Arroetaren IV. urteurrena

Arroeta Zamudioko mendi taldeak ekitaldi sorta antolatu du urtarrean, elkar-tearen laugarren urteurrena ospatzeko. Hilaren 16an, barikuz, hitzaldia eskaini zuen Alex Txikon mendizaleak eta bertan Lemoatik Nepalera furgonetaz egin-dako bidaiaren berri eman zuen. Bidaia ez ezik, Sisha Pangma zortzimila ere egin zuen Alexek, eta abentura horren gora-beherak ezagutzeko aukera izan zuten

hitzaldira hurbildu zirenek. Larunbatean bazkaria egin zuten eta Lubarrieta jate-txean 60 bat bazkide batu ziren. Baz-kaldu aurretik, trikipoteoa egon zen, Bertoko soinu tresnen elkarteak alaituta. Giro alaia izan zen egun osoan zehar, beraz, eta batzuek iluntzean ere jarraitu zuten festarekin. Pozik daude Arroeta-koek, eta jendea ere oso gustura egon zen ekitaldi bietan.



Argazkia: Arroeta mendi taldea

Bertso afaria antolatu dute Lauroetan

Otsailaren 27an, barikuz, Txarriboda/ Bertso afaria izango da Lauroetan, bertako jai-batzordeak antolatuta. Bertso afaria Aurregoiti jatetxean egingo dute eta bertan Xabi Paya eta Etxahun Lekue bertso-lariak arituko dira bat-batean.

Bertso-afaria iaz antolatu zuten lehe-nengo aldiz, eta ekitaldian 105 lagun batu

ziren. Aurtengoa aurrekoa bezain arra-kastatsua izatea espero du jai-batzor-deak.

Afariak 26 euro balio du eta txarte-lak eskuratzeko, telefono hauetara deitu behar da: 649 497 147 (Iñaki), 94 453 37 86 (Juantxu) eta 94 453 24 40 (Aurregoiti).

ARROETA - MENDI TALDEA

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

Salbidea? - Bertako aurrekoak

Itxas Vilelaren

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

Sablu Askotzaga

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

pro audio

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

BIDE GORRI

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

BAR TXIKI

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

TXORIERRI

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

Arroeta

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

Arroeta

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako

ZAMUDIOKO ESTANKEA

Arroeta eta bertako

VIKTOR

Itxas gela proiektu berriz, egindako proiektuak, bertako, bertako, bertako.

Plaza aurrekoak bertako



antenas VIZcaya

TELECOMUNICACIONES 4109-K HOMOLOGATUTAKO ENPRESA

Urkiola, 2 - 48160 DERIO Bizkala

- Antena kolektiboak
- Antena parabolikoak
- TB digitala, lurreko TB eta satellite bidezko TB
- Atezain automatikoak
- Bideo-atezainak
- Mantentze-kontratua
- Zirkuitu itxiko telebista

Gogoratu izan *DATORREN URTETIK AURRERA*
ez dela emitituko telebista analogikoen bidez
eta LTD erara moldatu behar du dela

Deilu konpromiso barik ANTENAS VIZCAYARA

94 454 14 60



Zelan tratatu zaituzte txorierritarrek?

O! primeran! Euskal Herriko publikoa oso fina da orokorrean, baina ikuslego bizkaitarra askoz beroagoa da. Badaki gauzez gehiago disfrutatzen. Dena dela, guztiek pasatzen dute ondo; bizkaitarrek batez ere.

Magia ilusio optikoa da gehienontzat, abilezia... Zer da zuretzat?

Egoera bat. Ez dut esango sentimendua denik, baina bai sentimenduekin jolasten dugu, emozioekin... Magia ez da soilik trikimailua. Trikimailuan magiaren oso zati txikia dago, benetako magia ikuslegoaren imajinarioan ematen baita. Eta zaila da hori manipulatzen. "Magia ez da existitzen!", diote umeek; baina, bai, magia norberaren barruan dago. Egin behar den gauza bakarra aktibitatea da, eta nor da aktibatzailea? Ba, magoa. Eszenatokira igo eta hainbat tramankuluren manipulazioaren bidez magia lortzen dugu magoek. Hor dago magiaren handitasuna.

Eta noiz deskubritu zenuen zuk zure barruko magia hori?

Gurasoek taberna bat zuten eta bezero batzuek sasi magia egiten zuten. Baina bederatziredo hamar urte nituela oso gau magikoa bizi izan nuen, benetan. Domeka gaua zen, euritsua eta trumoisua, eta gu itxear geunden. Agure atzerritar bat sartu zen eta aitari brandy bat eskatu zion. Baita kartak ere, niri magia egingo zidan-eta. Karta bat aukeratu eta hori sortatik desagertu egin zen. Eskegita zegoen bezero baten jakaren poltsikoan agertu zen... Eta taberna nahiko handia zela kontuan hartuta! Nik aukeratutako karta! Nire karta-sortaren karta! Aho bete hortz gelditu ginen hor geunden guztiok. Atzera begiratu, eta magoa ez zegoen ordurako. Horrek sartu zidan niri magiaren pozoia gorputzean.

Umeei zuzendutako ikuskizunek ospetsu egin zaituzte; hala ere, nagusientzako magia egiten duzu.

Umeek magiaren bitartez gozatu egiten dute, baina beste modu batean; hau da, euren fantasiazko munduaren perspektibatik. Trikimailuak, ispiluak, imanak... daudela badakite, baina bost axola. Helduok, berriz, logika laukidunagoa dugu eta aretoan oso ondo banatzen dira paperak: alde batetik, ikusleak; eta bestetik, magoa. Askoz errazagoa da magia helduentzat egitea; umeen aurrean biluzik sentitzen gara eta kontu handiagoz ibili behar gara. Indarrak hartuta igo behar gara eszenatokira.

Santi Antero, Txan magoa

“Magia norberaren barruan dago”

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Sobera ezaguna da Txorierrin, izan ere, behin baino gehiagotan eduki dugu bere magiaz gozatzeko aukera. Txan magoa gure artean azken aldiz Loiun egon zen, Euskara Egunean antolatutako ekitaldien barruan. Denbora pasatu da ordutik hona, baina oraingoan ere, atsegina izan da Santi Anterorekin hitz egitea.

Magoa ez ezik komunikatzailea ere bazara...

Bai, askotan hasten naiz hitz egiten eta ahazten zait zertan nabilen! (kar, kar).

Publikoarekin ederki konektatzen duzu, zelako ezaugarriak izan behar ditu magia saio on batek?

Lehenengo eta behin, eta publiko motaren arabera, magia egokia aukeratzen jakin behar da. Umeak badira, adibidez, ezin dira karta jokoak egin, aspertuko direlako. Ikus-jokoak izan behar dira, eta magoa ere “karrankaria”

izan behar da. Helduekin, ordea, ez duzu halako estratagemarik behar. Hala ere, magoak izaera izan behar du kasu bietan eta eszena menpean eduki. Ikuskizuna nola irtengo den lehenengo segundoan ikusten da: magoak bere buruan konfiantza badu, gusturago sentituko da publikoa.

“Artxila murtxila” Euskal Herriko magiaren lelo bihurtu da?

Oso istorio bitxia da. Duela hamar edo hamabost urte kanpaldia egin genuen Anoetan abiadura handiko trenaren aurka. Jose Mari





“Zerbaitez harro banago,
‘artxila murtxila’ Euskal
Herriko hitz magikoak
izatea lortzeaz da”

Karrere ipuin kontalaria ere bazegoen bertan eta hala esan zidan: “Aizu, *magia potagia* eta halako hitzak badaude, baina guk ez dugu hitz magikorik euskaraz”. Ezagutzen zuen Iparraldeko agure batek amonari “artxila murtxila” hitzak entzunak zituela aipatu zidan. Emakumeak akelarretan erabiltzen zituen, antza. Nik ere ikuskizunean erabiltzea erabaki nuen. Eta zerbaitez harro banago, horretaz da. Izan ere, ordura arte ez genuen euskal hitz magikorik izan; are gehiago, “artxila murtxila” ez dira jadanik Txan magoaren hitz magikoak; Euskal Herriko hitz magikoak dira. Anekdotak ere badaude. Gertatu da kanpoko magoa bertoko aretoetara etortzea eta umeei esan: “Beno, eta orain hitz magikoak esango ditugu. Bat, bi eta hiru...”. Magoa isilik, eta publikoa ere bai. “Baina ez dituzue hitz magikoak ezagutzen? Bat, bi eta hiru...” Eta areto osoak esan du: “Artxila murtxila!”. Eta magoa, aho bete hortz. Oso gauza handia da niretzat.

Euskal Herriko magorik ezagunena zara.

“Askoz errazagoa da
magia helduentzat egitea;
umeein kontu handiagoz
ibili behar gara”

Magia munduan hasi eta handik gutxira telebista zapaldu nuen. Zortzi urte eman nituen programa batetik bestera, eta telebistak zer bait ematen badu, hori ospea da. Eta beste alde batetik, noski, eskaintzen dudan ikuskizunak kalitatea du. Horrezaz gainera, ez ditut umeak umeak bezala tratatzen, pertsonak bezala baizik, eta asko eskertzen dute. Era berean, trikimailu hutsak egin ez ezik mezuak ere botatzen ditut ikuskizunetan: elkartasuna, behartsuei laguntzea, beste umeen errealitatea aipatzen diet...

Magiaren ikusle ona da mago bat?

Kultura duen pertsonak badaki lekuan egoten. Nik flipatzeko gaitasuna dut. Badakit beste mago batek trukuak nola egiten dabilen, baina gustatzen bazait, flipatu egiten dut. Eta magia edo ilusioa ez dira desageritzen horregatik. Magia ez delako harridura, engainua edo sorpresa; emozioa baizik. Txan magoa emozio bila dabil bere ikuskizunetan, publikoa saio batean hunkitzen bada, ez duelako bere bizitza osoan ahaztuko.

Baditugu irabazleak!

Egin zaitzez

Lan egiten

Aikor!

FOTOGRAFIA: JESUS VILLAN

Zelan?

Telerikiko moduan ikusiko duzue
 IRATXE: H-Ed H-4
 JULEN: 10-Ed H-4
 JOSEBA: 10-Ed H-4

www.aikor.com irabazleak

Maider Yuste del Río, animaliazale amorratua

“Narrastiak edozein maskota arrunt legez hazi daitekez”

Galeper bat izan dau, papagaiak, txakurrak, sugeak, kameleoia... baina iguanak be. Maiderrekin animaliaz beteta izan dau etxea txikia zantatik, eta gustatu narrastiak gustatzen jakoz gehienbat. Lezamarraren animalien-ganako zaletasuna ikaragarria da, benetan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Zenbat maskota dozu gaur egun?

Txakur bi eta metro biko iguana bat. Berrehun eta berrogeita hamar litroko akuarioa be badot.

Eta horreei guztiei lekua egiteko, etxetik botako zaituen mehatxurik ez deutsu amak inoiz egin?

Ba, hori ez da ezer. Garai baten 12 bat txori be izan dodaz, txintxillak, sugeak, hamsterak...

Nola hasi zan narrastienganako zaletasun hori?

Horrekin ukitzea desatsegin neban eta sentiazino hori gaintzeko, talka-terapiagaz animatu nintzan: iguana erosi neban.

Oso arrunta ez dan gauzea...

Ez da zaletasun arraroa, ezezaguna baino. Iguana, adibidez, animalia basatia da, baina ondo hazten badozu beste edozein maskotak legez jokatuko dau. Nirea aske ibiltzen da etxetik, eta “bere gauzak” non egin ikasi be ikasi dau.

Zaila da sinestea!

Lehen esan dodan lege, ezjakintasun haundia dago narrastien inguruan. Jenteak bildur izan deikie sugeei, adibidez, baina suge batek txakur batek baino min gitxiago egingo deusku kosk eginez gero. Sugearen haginkada ezezaguna da guretzat eta ho-

rregaitik deusagu bildur.

Animalien denda zabaldu dozu orain dala gitxi. Arrain, txori eta karraskariez gain, narrastirik be eskatzen dau jenteak?

Bai, uste baino jente gehiagok hartzen dauz maskotatzat. Dana dala, ez deuseguz edonori saltzen, narrastiek oso zaintza bereziak behar dabez, eta horrekin emoteko prest egon behar da. Animalia ondo heztea be ezinbestekoa da. Iguanak animalia merkeak dira; hogeita bost euroan erosi daiteke bat. Batzuek kapritxo erosten dabez, eta nekatzen diranean abandonatuta itxiten dabez kalean.

Zelango zaintzak behar dabez?

UVA izpiak eta berotasuna behar dabez

“Iguanak oso animalia merkeak dira eta kapritxo erosten dabez batzuek. Nekatzen diranean, abandonatu egiten dabez kalean”

gorputz-tenperatura erregulatzeke. Elikadura narrasti motaren arabera aukeratuko dogu: iguanak herbiboroak dira, eta pentzua, fruta eta barazkiak jaten dabez; sugei elikagai bizia emon behar jakez eta kameleoiek kilkerak jaten dabez, intsektuak... Egunean behin emon behar jake jaten, eta terrariuma bi asterik behin edo hilabetean behin garbitu behar da.

Eta gaixorik badagoz?

Bertoko albaitariak ez dabe esperientzia haundirik narrastiaz; Valentzia eta Bartzelonan, oster, prestakuntza hobea dabe. Ni albaitaritzak klinika laguntzailea eta albaitaritzak-laguntzaile teknikoak naz, eta beharri esker narrastien ganeke informazio haundia batzeko aukerea izan dot urte honetan. Hori erabilten dot animaliak gaixorik dagozanean.

Zelan lortzen dozuez?

Itxian hazi eta hornitzaileen bitartez saltzen dira. Bartzelona narrasti gehien hazten dan lekua da. Azoketara be joaten naz.

Erosiko dozun hurrengo animalia?

Urteak daroadaz barano bat hartzeko goagaz. Baranoa Komodoko dragoiaren familiako muskerra da. Baina oso txarto moldatzen da iguanagaz, eta leku haundia izan behar da biak eduki ahal izateko.

gurekarek hiri
nahi dugunak
gurea



78.000.000.000
78.000.000.000
78.000.000.000

izan zaitez **KORRIKA** laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuenak lortu duzu.

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA** izatea.


Honez gaitz pila eskuratuko duzu eta,
eskalatza orria botez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.





Behargintzak eskaintzen dituen zerbitzuak nabarmen handitu dira 2008an

Eskaerarik handiena prestakuntza eta enplegu, enpresa eta ekintzailtza arloetan izan da




2008. urtea oso urte bizia izan da Behargintza Txorierrirako. Aurreko urteetan baino kontsulta gehiago jaso dituzte, eta zentroan kudeatu diren lan-eskaintzak zein ekintzailtza-proiektuak ere handitu egin dira. Errepasoa egingo diegu arlo ezberdinetako adierazleei, Behargintzak eskualdean duen garrantzia ikusteko.

Prestakuntza eta enplegua

Iaz 1.600 lagun inguru hurbildu ziren Behargintza Txorierriko Prestakuntza eta Enplegu Arlora, kontsultaren bat egitera. Horietako 870 emakumezkoak izan ziren; eta 720, gizonezkoak.

Informazioa eskatu zuten gehienak txorierritarrek izan ziren: 1.090 lagun, hain zuzen ere. Baina aipatu beharra dago Behargintza Txorierrik beste eskualdeetan bizi diren ehunaka emakumeei eta gizonei ere ematen diela zerbitzua. Datu horiek adierazten duten moduan, herritarrek lan-aukera handiak eskaintzen dituen tokitzat dute Txorierrri, eta Behargintza lan-aukera horien kudeatzailea da. Orotara 3.699 eskari jaso zituzten; 2,3 eskari pertsona. Eskariek zerikusia izan zuten enpleguarekin, lan-orientabidearekin eta prestakuntzarekin.


Prestakuntza Behargintza Txorierrik eskaintzen dituen zerbitzurik garrantzitsuenetakoa da. Joan den urtean 5.896 prestakuntza-ordu eman ziren eta kurtsoetan 255 lagunek hartu zuten parte. Enplegu-aukerak hobetzeko ikastaroak langabetuei egon dira zuzenduta eta 154 pertsonak egin dituzte. Ikastaro horietara 5.500 ordu zuzendu dira; 232 ordu, etengabeko prestakuntzara; eta 158 ordu, au-





Enplegu zerbitzuaren bidez lortutako

Enplegu zerbitzuaren bidez lortutako



to-enplegura.

Behargintza Txorierri 1.137 lan-eskaintza kudeatu zituen 2008an, aurreko urtean baino 100 eskaintza gehiago. Eskain-

tzak 402 enpresek egin zituzten eta guztira 1.389 profesional eskatu ziren. Enpresa bakoitzak 2,8 eskaintza egin eta 3,4 lanpostu eskaini zituen, batez beste. Lanpostu

horietako 541 Behargintza Txorierriren bidez bete ziren.

Ekintzailerak

Ekintzailerak proiektuak ere handitu dira 2008. urtean. Berrogei proposamen aurkeztu eta hareetako 24 eraman ziren aurrera, 59 lanpostu sortuz. Oso zifra deigarria da, 2001. urtetik 2008. urtera bitartean 90 proiektu martxan jarri badira ere, %26 azken ekitaldian eratu baitira.

Faktore bik eduki dute eragina horretan: alde batetik ekintzailerak bultzatzeko politikak, eta bestetik, azken hilabetetako egoera ekonomikoa. Izan ere, inoren konturako langileen ezegonkortasunak lagun asko animatu du euren enpresa sortzera.

Enpresa

Enpresek 2.478 kontsulta egin dizkiote Behargintza Txorierri 2008. urtean. Laurogeita bi enpresak 1.445 informazio-eskara egin zituzten enpleguari buruz; eta 171 enpresak, berrikuntza gainera. Behargintza Txorierri konfiantzazko aliatua da, beraz, eskualdeko enpresetarako.

Enplegua, lankidetzak eta enpresen berrikuntza ardatz nagusiak izango dira aurrera

Behargintza Txorierri apustu sendo bi egingo ditu 2009. urtean: enplegua eta enpresa. Enplegua sustatzeko neurriak hiru puntu nagusitan oinarrituko dira: –Hurbiltasunetik lan egitea langabezia dauden pertsonekin. Jarraipen sakonagoa egingo diote egoera bakoitzari, lan bila edo hautaketa-prozesuetan, esate baterako, dabilzanek izan ditzaketen gabeziei aurre egiteko. –Hautaketa-prozesuak egokitu, eta ikertzea zeintzuk diren gaur egun enplegua sortzen duten sektoreak. –Mankomunitateko udaletxeekin bate-

ra lan egitea, enplegu-korrante dinamikoa sortzeko. Horrela, izaera publikoko zein publiko-pribatuko proiektuak jarriko dira martxan, lana galdu dutenei lan-aukera eskaintzeko.

Krisia oztopoa da bidean eta hori gainditzeko, Behargintza Txorierri berrikuntza eta enpresen arteko lankidetzaren aldeko apustua egiteko proposamena luzatu nahi die bertoko enpresei. Kostuak murriztu ez ezik etengabeko hobekuntza-prozesuan sartu ere egingo dute.



Behargintza Txorierri. Ekiteko Arloa
Berreteaga industrialdea 13 A
48150 Sondika-Bizkaia
Tel: 94 453 63 70
Faxa: 94 453 13 44
www.e-txorierri.com
behargintza@e-txorierri.com
Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

AM Amakomikio 7 Trakzioak

Inguruen Garapen Komunitateak
Udakoan 2016-2017
10-16 urteko gazteentzat
Irudikapen zabalik

Garapenak 10000
1000000000
10000000000

Amakomikio 7 Trakzioak
Amakomikio 7 Trakzioak

GROW 'n' ROLL
2016-2017

LEKUA LAGUNAKIN
INGURUEN GARAPEN
PROIEKTUAK

2016-2017
10000000000

Amakomikio 7 Trakzioak
Amakomikio 7 Trakzioak

MAGALARTE
2016-2017

LEKUA LAGUNAKIN
INGURUEN GARAPEN
PROIEKTUAK

2016-2017
10000000000


Amakomikio 7 Trakzioak
Amakomikio 7 Trakzioak

Pedro Mari Goikoetxea, kazetaria

“Merkatuan ego

Aurpegi ezaguna da Pedro Mari Goikoetxea lezamarrarena. Izan ere, astero ikusten dugu telebistan, *Boxeo izarrak* saioan alegia. Horretaz aparte, ETBko kirol emankizunen arduraduna ere bada. Herri Irratian hasi zen lanean, baina 25 urte daramatza Euskal Telebistan. Tarte horretan katea ez ezik, Pedro Mari bera ere izugarri aldatu da. Aldaketa hori, kirola eta telebista izan ditugu mintzagai kazetariarekin.

Testua: Gaizka Eguskiza



ETBko kirol emankizunen zuzendaria zara, baina zertan datza, zehatz-mehatz, zure lana?

ETB-lean eskaintzen diren kirol emankizunen ardura daukat: emanaldien eskubideak negoziatzea, orduak eta egunak zehaztea, hobekuntzak proposatzea, eta abar...

***Boxeo izarrak* saioaren aurkezlea ere bazara. Hala ere, aukera gutxi dago telebistan boxeoa ikusteko...**

Mutiko nintzela ikusi nuen boxeoa jarraitzaile mordoa zuela gure inguruan: zenbait lagun jaikitzen ziren goizaldeko orduetan Ali, Frazier edo Foremanen borrokaldiak ikusteko. Ur-

tainek ere ekarri zuen “boom-a”. Gainera, Euskal Herri mailan hainbat boxeo-saio antolatzen ziren. Horrek esan nahi zuen zaletasun handia zegoela eta hori ez da bat-batean amaitzen. Suari putz eginez gero, berriro pizten da. Horregatik boxeo borrokaldiak ematea proposatu nuen orain urte mordoa. Onartu egin zuten eta ikusleen erantzuna ikusita, asteroko saioa egiten hasi ginen. Boxeoa kirol “madarikatua” da askorentzat, baina beste askok oso gustukoa dute eta astero-astero jarraitzen dute saioa. Euskal Telebistak boxeoa ematen segitzen du, jendearen erantzuna ona delako. Kirol honek ikusle mordoa dauka eta oso leialak dira.

Irzamaiko Bartzokia

Irzamaiko Bartzokia
Irzamaiko Bartzokia
Irzamaiko Bartzokia

Garapenak 10000
10000000000
10000000000

QAP QAP
QAP QAP

Garapenak 10000
10000000000
10000000000

n behar da ETB”



Duela urte pare bat edo, futbola igortzeko eskubideak galdu zituen ETBk. Kolpe gogorra izan zen?

Bai eta ez. Euskal Telebistak ez zuen larunbat gauetan lehen mailako partidua zuzenean emateko eskubiderik galdu nahi, baina edozein preziotan erosi ere ez. Eskatzen zuten dirutza ordaintzea ez zen bidezkoa. Beraz, lehen mailako partiduen laburpenak eta bigarren mailako partidua zuzenean emateko aukera erosi genituen. Prezioa askoz txikiagoa zen, eta azken batean larunbat gauetan bi orduko emanaldi bat galtzen genuen, besterik ez.

Gabonetan Euskal selekzioaren partida ere ematen zuen ETBk. Zer deritzozu aur-

ten sortutako gatazkari?

Lotsagarria. Zorritzarez, herri honen ispilua da. Zerbait aurrera ateratzeko aukera daukagun bakoitzean, geure artean mutur joka hasten gara eta dena pikutara joaten da azkenean. Geuretzat kaltegarria izan da, atzerapauso handia, eta kanpokoan aurrean barregarri gelditu gara.

Beste iskanbila bat, Mediapro eta Audiovisual Sport enpresen artean dagoen futbola igortzeko eskubideei buruzkoa hain zuzen ere. Zer uste duzu horren inguruan?

Gai honetaz liburu osoa idatz daiteke eta ziur asko inork ez luke ezertxo ere ulertuko. Tira-bira hori oso gogorra eta korapila-

“*Euskal selekzioaren partida jokatu ez izana atzera-pauso handia izan da eta kanpokoan aurrean barregarri gelditu gara*”

“*Athleticek ondoen ibilita ere, oso gaitz dauka onenen artean egotea*”

tsua da. Futbolzale arruntak ezer gutxi ulertzen du eta mundu horretan sartuta gabiltzanok ere ezin dugu sinetsi gertatzen ari dena. Azkenean, egunen batean, epailek erabakiko dute, baina ez dakit noiz, denbora askorik ere ez baita gelditzen: aurtengo ekainean amaitzen da kontratua eta besteren bat negoziatzen hasi beharko dute.

Athleticzalea zara. Zelan ikusten duzu Caparrosen taldea aurtien?

Apurka-apurka, asko kostata, talde itxura hartzen ari da. Jokalari gazte batzuk gero eta hobeto dabilta eta iazkoa hobetuko dutela iruditzen zait. Dena den, Athleticen inguruan dena da beltza edo zuria. Gauzak lasaitasun gehiagoz aztertu behar dira. Athleticek, ondoen ibilita ere, oso gaitz dauka onenen artean egotea, Europa mailako talderik onenetarikoen kontra ari delako lehian, eta azken 15-20 urteotan futbol arloan hartu diren erabaki gehienak Athleticentzat kaltegarriak izan direlako.

Orain herri kirolak eta pilota igortzen ditu ETBk, batez ere. Nahikoa ala gutxi?

Euskal Telebistak herri kirolak eta pilota betidanik eman ditu: profesional mailako lehenengo partidua duela 26 urte eman zuen. Nahikoa ala gutxi den ikusleek esan beharko dute. Nik datuak emango ditut: esku pilota profesionalari dagokionez, ETBk 120 jaialdi ematen ditu urtean. Herri kirolen arloan, 20 gutxi gorabehera.

Pilotaz ari gara. Gero eta gehiago ordain-

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Elkarbiziaren irratia gogoratu!

Elkarbiziaren irratia gogoratu!

Plazak hartu!

Arazoak agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

Herri Irratitik ETBra

Pedro Mari Goikoetxea Lezaman jaio eta Durangora ezkondu zen. Betidanik gustatzen zaio idaztea eta gaztetan kolaborazioak egiten zituen Derioko seminario-ko aldizkarian. Horregatik erabaki zuen kazetaritza ikastea. Karrera amaitu, eta hilabeteko ordezkapena egin zuen Deia egunkarian. Horretaz aparte, euskarazko klaseak eman zituen San Adrianen eta Bilboko Hizkuntza Eskolan.

Baina lanbidearen gorabeherak Bilboko Herri Irratian ikasi zituen. "Denetarik egiten genuen bertan: kazetari eta esatari lanak, publizitatea saldu... Txorierriko lehenengo berriemaile ibili nintzen. Lanbidea ikasteko leku egokia zen eta euskarazko programazioa hasi berria zen. Jakituria gutxi nuen, medio aldetik ere oso urri genbiltzan, baina geure artean giro ezin hobea genuen eta beharrerako gogo ikaragarria. Oroitzapen politak ditut".

1983an Euskal Telebistara ailegatu zen. "Hasiera batean ez neukan telebista-

ra joateko gogo handirik, baina azkenean, ekinaren ekinez, konbentzitu ninduten". ETBn *Gaur* egun albistegia egiten hasi zen eta kirol arloko zuzendari izendatu zuten geroago. Lan hori utzi ondoren, denbora luzez ibili zen kazetari lanak egiten, albistegietan zein kirol emanaldietan (futbola, txirrindularitza, pilota...). 2000. urtean berriro kirol arloko zuzendari izendatu zuten eta 2007tik hona emankizunen ardura dauka.

Bere ustez, gogorrena lantalde oso baten ardura izatea da. Urteak eman ditu kamara aurrean, baina "gero eta gutxiago" gustatzen zaio. "Beti izan naiz lotsatia eta nahiago dut ezkutuan ibili. Gainera, aurpegia erakusteko itxura hobea dutenak ere badaude...". Euskaraz zein erdaraz egin du lan. "Arlo batzuetan euskaraz erosoago egiten dut behar, eta beste batzuetan, gazteleraz". Hizkuntzari dagokionez, arazoak izan zituen hasieran. "Kirol hizkuntza sortu egin behar izan genuen. Oraindik ere lan handia dago arlo horretan egiteko. Gaztelerak ez dauka horrelako arazorik, hizkuntza hori erabat normalizatuta dago eta guztiok ezagutzen dugu kirol bakoitzaren argota".



“Lau t’erdiko
Txapelketak buruz
burukoa baino ikusmin
handiagoa sortzen du”

tzen da finalak ikusteagatik, gero eta profesionalagoak dira pilotariak... Goi-mailako kirola da gaur egun, ezta?

Gizartea bera aldatuz doan neurrian, pilota eta pilotazaleak ere aldatu egin dira azken urteotan. Orain 30 edo 40 urte ia txapelketarik ere ez zen behar jendea pilotalekura eramateko. Toki askotan ia modu bakarra zen jendeak denbora emateko. Baina gaur egun aukera asko daude, eta kirol moduan gaurkotu ezik ez dago zereginik. Horregatik, pilotariek profesionaltasun osoz aritu behar dute eta benetako lehia dagoenean jendeak erantzun egiten du. Esate baterako, final bat ikusteagatik pilotazaleek ez daukate 120 euro ordaintzeko arazorik. Pilota partidu arrunt batera, ordea, sarrera doan ipinita ere, ia inor ez da joaten. Publikoa bera ere ezberdina da. Gaur egun, futbolaren antza hartzen hasita dago (kantuak, pankartak, eta abar...). Lehenengo pilotazaleei horrelakorik burutik pasatu ere ez zitzaien egiten.

Zer uste duzu jokatu berri den Lau t’erdiko Txapelketari buruz?

Lau t’erdikoa Txapelketa berriena da: 1989an hasi zen eta 19 urte hauetan goi mailara heldu da. Jendeak oso gustukoa du, alde batetik ondo antolatuta dagoelako, onenen arteko ligaxka eta guzti; bestetik, partida ederrak ikusten direlako. Pilotari bikainak daude (Titin, Olaizola II, Barriola, Irujo...) eta ikuskizuna da nagusi. Jokoa bizia da eta distantzia oso egokia, norgehiagokak parekatuak ikusteko. Nik esango nuke gaur egun kantxa osoan buruzburu jokatzaren partiduek baino ikusmin handiagoa sortzen duela.

Txorierriin ETBk igortzen duen pilota txapelketa dugu, Lezamakoa alegia. Dakizunez, Pilota Elkartek 50 urte bete du aurten. Zer garrantzia du txapelketak?

Afizionatu mailan jokatzaren diren txapelketen artean, onenetarikoa da Lezamakoa. Hortik pasatu dira profesional mailan ibili diren eta dabilen pilotaririk gehienak. Alde horretatik antolatzailen lana goraipatzekoa izan da.

Datorren urtean TDT-ren bidez ikusiko dugu telebista guztiok. Nolako

San Isidro
ESKONTZULE BATAJOAK BILBAOETIK
Eskontzuleak - Eskontzuleak - Eskontzuleak
Jantziak - Jantziak - Jantziak

Bar TRIPPY
ZURE GEROK ORENA
Gero geroa geroa geroa, geroa geroa geroa
Gero geroa geroa geroa, geroa geroa geroa

“Hasierako ETBk
eta gaur egungoak
izenean baino ez
daukate antza ●

aukera eskaintzen du horrek?

TDT delakoaren bidez, kate kopurua lau aldiz biderkatuko da. Bestalde, kalitatea ere hobea izango da eta interaktibitatea bultzatuko du.

EiTB etengabe ari da hazten: hirugarren katea jarri du martxan eta laster egongo da laugarrena ere ikusteko aukera. Euskal Herria txikia da. Kate gehiegi dira?

Kate berriak dira, baina neurri batean. ETB-3ko programazioaren zati handi bat ETB-1erako egiten diren gauzekin betetzen da. Gainera, kate horrek aurrekontu oso txikia dauka. ETB-4 azaroan hastekoa da eta oraindik ez dago erabat zehaztuta nola-koa izango den, baina gauzak bide beretik joango dira. Edozein modutan, kate gehiegi izan zein ez izan, ETBk merkatuan egon beharra dauka, bestela toki hori besteren batek beteko du.

25 urte bete ditu duela gutxi ETBk. Aldaketa asko izan ditu hasi zenetik?



Bai. Nik esango nuke hasierako ETBk eta gaur egungoak izenean baino ez daukatela antza. Tokiz ere aldatu gara eta teknologia aldetik zer esanik ez. Gainera, programazioak, langile kopuruak eta beste hainbat

arlok ere goitik beherako aldaketa izan dute. Geu ere dezente aldatu gara: orain 20 urteko irudiak ikusten ditugunean konturatzten gara urteak ez direla alferrik pasatzen...



SOMAKAKO KULTUR ETXEA
 Osoaia kalea, 1 (Leizorako aldea)
 Telefonoa: 941.933.84.13

ZINEA
 Leizorako 18. Bilakaia

Osoaia 1. C
 + Leizorako 1. A

Osoaia 17:
STAR WARS: THE CLONE WARS
 (2003)

Osoaia 18:
LA ISLA DE NIM
 (2004)



ANTZERKIA
 Osoaia 21, 12.00etan

Osoaia 1:
SPACE CHEMPS: MESSON ESPACIAL
 (2001)

Osoaia 2:
SPACE CHEMPS: MESSON ESPACIAL
 (2001)

Osoaia 20, 8.00etan, 22.00etan
CHE, EL ARGENTINO ASESINATO JUSTO
 (2000)

Osoaia 21, 8.00etan, 22.00etan
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

THIRTEEN HOURS
 Hugsybo (P. Alcaraz) (A. Alcaraz)

+12 urte, 14
 +14 urte, 15 C

Osoaia 5:
LEPPE
 (2004) (2005)

Osoaia 20:
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

THIRTEEN HOURS
 Hugsybo (P. Alcaraz) (A. Alcaraz)

+12 urte, 14
 +14 urte, 15 C

Osoaia 5:
LEPPE
 (2004) (2005)

Osoaia 20:
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

THIRTEEN HOURS
 Hugsybo (P. Alcaraz) (A. Alcaraz)

+12 urte, 14
 +14 urte, 15 C

Osoaia 5:
LEPPE
 (2004) (2005)

Osoaia 20:
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

THIRTEEN HOURS
 Hugsybo (P. Alcaraz) (A. Alcaraz)

+12 urte, 14
 +14 urte, 15 C

Osoaia 5:
LEPPE
 (2004) (2005)

Osoaia 20:
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

THIRTEEN HOURS
 Hugsybo (P. Alcaraz) (A. Alcaraz)

+12 urte, 14
 +14 urte, 15 C

Osoaia 5:
LEPPE
 (2004) (2005)

Osoaia 20:
EL MUNDO DEL PESQUE DE MAYAN
 (2000) (1999) (2000) (2001)

Zapi monetaduna gerrikoari lotu eta hasi da eskola. Luzatze ariketak egin ostean, musika jarri du irakasleak: Shakiraren abesti bat, “suabe” hasteko; eta horren ostean, danborrak nagusi diren arabiar erritmoak. Zaila izan behar du, benetan, aldaka, sabela, besoak, hankak, lepoa, bularra... erritmo azkar horretan mugitzeak. Eta gorputz atal guztiak aldi berean, gainera.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Loiuko gimnasioan dantzan zebiltzan sei emakumeen mugimenduak ikusten genituen bitartean, sabel-dantza oso dibertigarria dela pentsatu dugu lehenengo. Baina Claudia irakasleak azaldu digunez, dibertigarria ez ezik oso dantza onuragarria ere bada. Alde batetik, gorputz atal guztiak lantzen dira: aldaka, besoak, bularra... eta horren ondorioz, muskulak sendotu eta bizkortu egiten dira. Dantza hori egiten dutenek elastikotasun handiagoa ere badute. Bestetik, onura psikologikoak ekartzen dizkie dantzari. "Arazoak ahazten dituzu. Negatibotasuna gorputzetik ateratzen da musikaren eta danbor doinuaren bidez; gorputza desblokeatu egiten da". Zapi moneta-duna janzteia ere ez da kasualitatea. "Armonia ematen dio gorputzari, eta mone-ten hotsak askatasuna ematen dio sabelari"

Sabel-dantza ikastaroa 2007-2008
ikasturtean jarri zuten martxan Loiu.
Gimnasioan 30 urtetik 52ra bitarteko sei

emakume batzen dira barikuetan. Emakumeok arretaz jarraitzen dizkie Claudiaren azalpenei eta mugimenduei. Horma osoa hartzen duen ispilua lagungarri dute behar horretan. Arnasketak, beroketak eta luzatze ariketak egin dituzte lehena. Claudiak pauso batzuk irakatsi eta haiek interpretatu dituzte musikaren erritmora. "Ikaskuntza prozesua progresiboa da. Oinarrizko pausoekin hasten da eta, haiek ikasi ahala, pauso zailagoak egiten dira. Dantza erakargarriagoa egiteko, beste elementu batzuk erabiltzen dira: beloak, kortaloak (atzamarretan jartzeko metalezko aleak), makilak..."

Shakira abeslaria datorkigu burura sabel-dantzari buruz hitz egiten dugunean. Hark eta haren moduko artistak ezagutarazi dute dantza hori Mendebaldean. Dantza akademiaren mugak gainditu eta dantza hori ikasi nahi duten emakumez bete dira kultura etxeak, kiroldegia eta gimnasioak. “Ikasle batzuek Shakiraren mugimenduak egiteko

Gune bizia eta biziteko

Bizkaiko sei familiak Bizigune Zabal proiektua jarri dabe martxan urtarrilean Larrabetzun. Haurtzaindegia dala esan daikegu lagunarteko berbakerean; halanda be, printzipio berezi bitan oinarritzen da: umearen berezko jarduera, harek ikasteko dauan era da; eta ume bakoitzaren bizitza-prozesua eta erritmoa errespetatu behar dira.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Herri ezberdinetako familiak dira: Zornotza, Lekeitio, Dima, Areatza, Larrabetzu eta Turtzioz. Eta guztiek gauza bi dabez komunean: hiru eta sei urteren bitarteko seme-alabak dabez, eta eskolara oraindino ez eroatea erabaki dabe. Pentsatzen dabe goiz dala eta umeek ez dabela behar.

Familiak Haurdun Bilboko alkartearen bidez ezagutu dabe elkar, eta euren artean sare bat osatu dabe. Urte eta erdi daroe berezko bilerak egiten, plazetan, etxeetan..., guraso legez dabez esperientziak eta kezkek alkartrukatzeko. "Baina gure beharrak beterik baegozan be, seme-alabek beste batzuk zirala konturatu ginan, eta leku egokia behar ebela euren gaitasunak garatuteko". Leku hori Goikoelexaldeko txokoa topatu dabe.

Proiektuan zazpi ume hartuten dabe parte, eta txokoa euren beharrianetara egokitu egin da. Gurasoek euren poltsikotik jarri dabe dirua materiala erosteko, baina dohaintzak be jaso dabez hainbat alkartetik. "Leku seguru bat eskaini gura deutsegu, fisiko zein emozio arloan. Gune aberats bat, euren beharrak eta hazkuntza-erritmoa errespetatzen dauana eta

gauzak egiteko aukerea emoten deutsena".

Zazpi umeak martitzen, eguazten eta eguenetan joaten dira txokora. Goizeko 11tatik eguerdiko ordu bietara arte beharrian pasaten dabe denborea. Olgetan, margoten, korrika, saltoka, ipuinak entzuten... ikasten, azken baten. Bitartean amek zaintzen dabez, zaindu eta hezi. Amek txandak egiten dabez eta egunero hiru nagusi dagoz umeakaz. "Gure eginkizun nagusia umeak zaintzea da. Ez dogu telefonoa hartzen, ez gabilz berbetan gure artean... Ordu-bietan bazkaria konpartitu eta arratsaldeko lauretarako libre ixten da txokoa".

Arimagaz bat

Proiektuaren arduradunek Larrabetzuko Kultura Batzordera jo eben euren beharrianak jakinarazteko, eta txokoa urte bian erabilteko baimena emon eutsen Udalak. Horren orde, herritarrei zuzendutako ekitaldi bi antolatu behar dabez urtean, eta lehenengoa otsailean bertan egingo da. Hilaren 13an, arratsaldeko 7etan, proiektua aurkeztuko dabe jente-aurrean, eta hilaren 14an eta 15ean *El cuidado del alma infantil* ikastaroa egingo da.

“Proiektuan zazpi ume hartuten dabe parte eta Goikoelexaldeko txokoa euren beharrianetara egokitu egin da”

Ikastaroa Cristobal Gutiérrez hezitzaileak emongo dau. Ekitaldi biak Anguleri jauregian izango dira. "Umeak bat datoz euren arimaz eta ikastaroan gu be gure arimaz bat etorten ikasiko dogu. Holan, umeen alaitasun eta bizitasun horreei eutsiko deutsegu".

Bizigune Zabal oso egitasmo barria da eta arduradunei txorieritarrek zein beste herrietako lagunek bertan parte hartutea gustatuko litxakie. "Hazkuntzaren laguntza-taldea sortu gura geunke. Aitek eta amek osatutako taldea, bizitzan zelan jokatuten dogun errebasatuteko, eta umeakaz dogun harremanagaz baliatuz, pozago biziteko".

Informazio gehiago:
caibilbao@gmail.com
(Angela Menica).






biok

DISEINUA | ORDENADO ESPACIOS

PROIEKTUAK ETA BERRIKUNTZAK



proiektuak

- enbikin proiektuak, berrikuntzak, lokalak
- etxebizitza unifamiliarrak eta bifamiliarrak
- proiektu teknikoaik
- planoak egiten ditugu
- modelaketak (Infografikoak)
- osagaien kokapena eta dekorazioa
- lan eta berrikuntza osoa




berrikuntzak

- dala gure esku etxebizitzak, baserriak, merkataritzako lokalak...
- gremio guztia: igeltzerotza, iturgintza, elektrizitatea, arotzeria (leguma, aluminioa, PVC), itargaragapenak, jaskintza eta igeltzerak, elkarretara, altxorak, ... eta bester elkarri gurtia

berrikuntzak

- dala gure esku etxebizitzak, baserriak, merkataritzako lokalak...
- gremio guztia: igeltzerotza, iturgintza, elektrizitatea, arotzeria (leguma, aluminioa, PVC), itargaragapenak, jaskintza eta igeltzerak, elkarretara, altxorak, ... eta bester elkarri gurtia





beko kalea, s/n • 48100 MUNGIA (Utzkara)

www.biokdiseinua.com biok@biokdiseinua.com

tf./ fax: 94 656 70 36

telefonoa tf.: 615 744 637



OSASUNEZ, PISUA GALTZEKO METODOA

SOZIAL BOKAZIA ETA BITTIBOKAZI UNIBERTSITATIAK DIRA OMTZAK (JULI) HIRIBAT LUTIFARIKOSKOTZITIA

Esforteez txikiak, azkar

ETXETIK GUTXIKOIN OZKUA OSATU

OSASUNEZ, PISUA GALTZEKO METODOA

PERSONALIZATUA,

ERAGINKORRA,

SEGURUA, ...



ZAMUDIO

ZAMUDIO

PERSONALIZATUA,


ERAGINKORRA,

SEGURUA, ...

Hästens

Artea

Custom made beds



Artea

ARTEAGA

kaltxei-denda

Deriska Scharia • 94 454 51 47 • DERIO

Irakurtzea da gauzea!

Liburuak dagozan lekua da liburutegia. Eta liburuak eta irakurketa abiapuntutzat harturik, hainbat ekimen egiten dira liburutegietan, irakurtzeko ohiturea bultzatzeko. Zamudion, behintzat, hilabeteen behin egiten dabe. Eta hori dala-eta, Espainiako Kultura Ministerioak banatzen dituan “María Moliner” sarietako bat irabazi dabe bosgarren aldiz. Guztira, haur eta nagusientzako gaztelerazko 200 liburu jaso ditu Amagoia Guezuragak kudeatzen dauen liburutegiak. “Liburu barriak dira. Ganera, beste liburu batzuk (beste era baten erosiko ez geunkezanak) erosteko aukerea emoten deusku horrek”, dino Amagoiak. Gabonak pasa dira, baina Olentzerok opari berezia itxi deutso, bai noski!

Gaztelaniaz idatzitako liburuak be behar ditu liburutegiak, inguruko gazte gehienak euskaldunak izan arren. "Txikiak euskeraz irakurten dabe eta, eskaera beteteko, Eusko Jaurlaritzaren babesa eta laguntzea doguz. Gaztelaniaz, barriz, galdezka ibili behar izaten dogu leku batetik bestera, aproposenak edo arrakastatsuenak zeintzuk diran ez dakigulako. Sari horren bidez, argibideak ez eze, liburuak be jasotzen doguz Ministeriotik".

Besteak beste, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako liburuek osatzen dabe liburutegia. Azken hizkuntza bi horreetan jasoten da eskaera gehiena, jakina. “Txikienek euskarazko liburuak hartzen ditue, eta nagusiek, ostera, gaztelaniaz idatzitakoak. Nagusi batzuk euskaldunak dira, baina nahiago dabe gaztelera irakurri. Batzuetan, gazte batzuk etorri jakuz uda garaian, eta gaztelaniazko liburuak eskatu deuskuez, hizkuntza horretan gixitan egi-



Testua: Gaizka Eguskiza; argazkiak: Amagoia Guezuraga

Gazteek aisialdiaz goatzeko era barriak ditue orain. Lehen, lagunakaz ibiltzen ziran kaleetatik, eta etxean telebista ikusten edo liburuaren bat irakurtzen emoten eben denborea. "María Moliner" sariek irakurtzeko ohiturea ez galtzea dabe helburu, eta Zamudioko liburutegiak sariotako bat lortu dau bosgarren aldiz.

ten dabelako eta institutuan eskatzen de-
tseelako. Hau da, gaztelaniari indarra emo-
tera etorten dira. Berdin da, irakurtzea da
gauzea!''.

“Amagoiak ez dau ahalegin berezirik egin behar izan María Moliner” sarien deialdian parte hartzeko, ekitaldiok aspal-

ditik antolatzen dituelako. “Txosten baten, praktikan egiten dogunaren barri emon, besterik ez dogu egin behar izan. Bertan kronogramea, helburuak eta halako kontuak adierazi behar izan doguz”. Bere esanetan, “ahalegina, berez, ekitaldiak antolatzea da”. Eta horri lotuta dagoena, noski:



Rede de empresas de sucesso

Revendas autorizadas, melhores preços autorizados.



CONHEÇA
O QUE TEMOS
PARA OFERTAR

CONHEÇA, ESCOLHA E DESFRUTE O SEU NEGÓCIO

TEL: 04 688 88 44
Fax: 04 688 88 70
contabilidade@rededec.com.br

**Trabalhe de verdade. E
ganhe de mais
em seu tempo pessoal**



BRANCHES IN THE FOLLOWING CITIES:

www.elekma.com
FOR MORE INFO VISIT
www.elekma.com



Call us at
020 8333 1111
or visit us
online at
www.elekma.com



Arad **Arkitektura**
projekt- és bontóüzem

Pharmageneráció, környezet- és technikaépítés

T 944 088 155

www.aradarkitektura.hu

 **MODA
INFANTIL**
Trimeleta

Endereço: Av. Itália 11
Fátima - RJ 21.110-110
1.911 19.054 01 16

1911 19.054 01 16

Kontadazu ipuin bat

Amador 26 urte zituela heldu zen Extremaduratik Bizkaira. Harekin batera, familia etorri zen eta bizitza berria hasteko ilusioa ekarri zuten mailetan. Baita Jerteko bailaran nahiko zabalduta zegoen ohitura ere: ipuinak eta istorio fantastikoak kontatzea umeei. Aitak seme-alabekin egin zuen bezala, Amadorrek behin baino gehiagotan kontatu dizkio istorio horiek bost seme-alabei, hamar lobei eta birlobari.

Eta jubilatu ostean besteei ere kontatzera animatu zara.

Loba batek propaganda egin zidan Derioko eskolan. Ipuinak kontatzen nituela komentatu zuen eta saioa egiteko deitu zidaten. Hiruzpalau aldiz izan naiz bertan. Lehenengo saioa egin ostean, honela komentatu nion andereño bati: "Ez dakit gus-tatu zaien. Badakizu, umeek beti jotzen dute txalo". Eta berak erantzun zidan: "Ba, umeei ez dakit, baina niri izugarri gustatu zait". Derioko liburutegian ere pare bat aldiz izan naiz, baina, egia esate-

ko, nahiko jende gutxi batu zen ni entzute-ra.

Zaletasuna aitarengandik datorkizu.

Aita baserritarra zen eta artoa landatzen zuen, babarrunak... Haiek garautu egin behar ziren eta oso lan aspergarria zen umeontzat. Aitak ipuinak kontatzen zizkigun gu erne

egoteko. Ipuinok nondik ateratzen zituen ez dakit, inoiz ez bainuen ikusi bat ere irakurtzen. Eta istorioak harengandik ikasi nituen denboraren poderioz. Duela 20 urte hasi nintzen ipuinok paperean batzen, etorkizunean ez galtzeko.

Zenbat batu dituzu?

Hamalau guztira: hamar aitarenak dira; eta beste lauak, neuk asmatuak.

Umeentzakoak ala helduentzakoak?

Ipuinak entzule mota biontzat dira. Hala ere, nahiago dut ipuinak umeei kontatu, tolesgabeagoak direlako. Barre egiten badute, e-sandakoak barregura eman dielako da; helduek barre egiten badute, berriez, zuri barre egitearren izan daiteke, beharbada.

“Nahiago dut ipuinak umeei kontatu, tolesgabeagoak direlako”

Ulertzen? Helduok malezia hant-diagoa dugu.


Zaila da umeen arreta bereganatzea?

Ez, nire ustez. Baina, jakina!, ni ez naiz ipuin kontalari profesionala. Haiek baliabide gehiago izaten dituzte umeen arreta euren-ganatzeko: arropa, musika, efektu bereziak... Nik ipuina kontatzen diet eta kito; itxura handirik gabe. Umeek arreta jaso nahi dute nagusiongandik, eta, ipuina entzuten dutenean, protagonista sentitzen dira istorioa eurentzat baita. Hor dago gakoa!

Zure ipuinetako pertsonaien artean dau-de animaliak, pertsona arruntak, erre-mentariak, basozainak... Zein da haien filosofia?

Umeek tarte atsegina pasatzea da nire helburu bakarra. Goza dezatela entzuten duten istorioaz. Poz handia hartzen dut entretenituta dau-dela ikusten dudanean. Gaur egun ez dakitelako ezertan jolasten.

Geure ga-raian leku ba-tetik bestera korrika ema-



ten genuen egun osoa, edozein gauzatan jolasten genuen lagunekin, eta bagenekien nola dibertitu.

Oraingo umeek joko indibidualistak dituzte nahien: bideo-jokoak eta halakoak... Istorioa entzuten dutenean, bat egiten dute protagonistarekin, eta, ipuinetan gauzak beti ondo irteten direnez, eurak ere ondo sentitzen dira.

Anekdotaren bat?

Ez, oso ondo portatu dira beti saioetan. Marrazkiak ere oparitu dizkirate. Eta agurtu ere kaletik elkar ikusi dugunean: "Kaixo Amador, zer moduz zaude? Ea eskolara itzultzen zaren!". "Berrir gonbidatzen nauzuenean!", erantzuten nien nik. Oso ondo tratatu naute beti, eta oso gustura sentitu naiz, pozik.

Besteek idatzitako ipuinik kontatzen duzu?

Ez, ez naiz haiek buruz ikasteko gauza. Nire errepertorioaren artean hauek daude: *Pancrudo errementaria*, *basozainarena*, *Armeniako mendilerroa*, *Monetaren Etxea*, *Eliasek historia...* Azken hori nik asmatutako ipuina da. Txikitan Elias ize-neko mutiko bat ezagutu nuen eta haren gorabeherak erabili nituen abiapuntutzat ipuina idazteko. Besteak burutik atera ditut, dakizkidan gauzetatik, neure bizipenetatik...

Zein da gehien gustatzen zaizun ipuina?

Deabruaren hiru alabak. Aitak txikia nintze-la kontatzen zidan eta oso ipuin erakargarria da, mutil baten bizitza arriskuan dagoelako. Baina ipuin guztiek bezala, honek ere amaiera zoriontsua du. Eta hala ez bazen sar dadila kalabazan eta atera dadila Derioko plazan.

Testua eta argazkia:
Itxaso Marina



ARTESIA, EL VARMAL, EMPESAL

MAQUINARIAS Y EQUIPAMIENTO

EXCAVACIONES AZURMENDI

MAQUINARIAS Y EQUIPAMIENTO

PROYECTOS DE OBRAS DE OBRAS

Teléfono: 941 884 188

URAS

Historia eta masajak

Ala Párraga, M. L. L. L.

El 100% de la obra es de la autora.

SARRIKOLA OGITEGIA

El 100% de la obra es de la autora.

El 100% de la obra es de la autora.

Teléfono: 941 884 188

urel
Psicología Social

EL PRIMER PASO
CONSULTA GRATUITA

HAURRAK - NERABEAK - NAGUSIAK - ZAHARRA

comunicación, grafología, etc. (particular o empresarial)

Ureleko Txerriak dituzte
El 100% de la obra es de la autora.

El 100% de la obra es de la autora.

MAQUINARIAS Y EQUIPAMIENTO

MAQUINARIAS Y EQUIPAMIENTO

El 100% de la obra es de la autora.

El 100% de la obra es de la autora.

Teléfono: 941 884 188



Josu Aretxabaleta, Bertoko alkartearen presidentea

“Euskal folklorea herrian errotutea da gure beharra”

Ezagunak baino ezagunagoak dira Txorierrin. Neska-mutil honeek herriko jaiak ez eze edozein ekitaldi mota alaitu eta girotuten deuskue. Bertoko Zamudioko Soinu Tresnen Alkartea 1996. urtean sortu zan eta gaur egun 70 partaide inguru ditu. Josu Aretxabaleta alkartearen presidentea arrakasta horren gakoak azaldu deuskuz.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Bertoko

Hirurogeita hamar ez da zenbaki makala...

Bai, ikasleak horreek dira, baina aitatu beharra dago atzean be jente asko dagoala beharrean. Zuzendaritza-batzordean zazpi pertsona gagoz eta gurasoak be beti agertzen dira prest lagunduteko: musikariak leku batetik bestera eroaten, ekitaldiak prestaten, bazkariak egiten... Alkartean lau urtetik gorako lagunak gagoz, oso proiektu zabala eta orokorra izan behar dala uste dogu-eta. Jente ezbardina, eta ahalik eta gehien, batuteko.

Korapilatsua izan behar da hainbeste jente mobilizatutea urteeretan...

Batzuetan bai, baina esan dodan moduan, oso laguntzaile prestuak doguz. Ganera, gazte askok kotxea dabe eta gero eta hobeto konponduten dira euren artean. Hobe-rantz goaz eta errazagoa da.

Nondik ibiltzen zarie?

Herriko jaietan hartzen dogu parte, eta Txorierriko taldeek antolatuten dabezan ekitaldietan. Kalejirak egiten doguz bertan zein kanpoan, eta Txotxongilo Egunean aritzen gara, Etxebarriko Dantza Txapelketan... Urteera pilo bat egiten dogu, baina horreek neurtuten saiatuten gara, jentea

“Proiektu zabala eta orokorra da gurea, oso jente ezbardina batuten dauena”

nekatu ez daiten.

Zein da alkartearen filosofia?

Antxinako jentea oraingo jenteagaz lotu gura dogu; eta hareek biak, datorrenagaz. Gure kultura ez ahaztuteko, indartuteko eta herrian sustraituteko. Garrantzi haundia emoten deusagu horri. Eta bide onetik goaz, partaide asko ez eze irakasle dezente be badogulako. Kalejiratan-eta urteten diranak be nahiko urteten dira.

Zer ikasi geinke Bertokon?

Bost instrumentu: trikitixea, txalaparte, panderoa, dultzaina eta albokea. Baina ikasteaz aparte, herritik jotzen urteteko proposamena egiten deutsegu musikariei, eta urteerak be antolatuten doguz kanpora, jenteak ondo pasatuteko eta “taldea egiteko”. Helburua hauxe da: ikusi dagiela instrumentu bat ikastea ez dala bakarrik kla-



sera joan eta apur bat jotea; kultura zabaldutea baino. Eta ganera, guztiona dala.

Bilakaerarik izan dau taldeak?

Hasikerean Kepa Junkera ibili zan irakasle, eta trikitixa eta panderoa emoten ziran. Txalaparteagaz be saiatu ginan, baina klaseak bertan behera gelditu ziran. Orain dala urte pare bat txalaparteagaz be hasi gara, eta dultzaina eta albokea irakasteari be ekin deusagu. Azken hiru instrumentu horreei esker indartu da taldea.

Beste alde batetik, Edurtzeta Ania pandero eta kantu irakaslea ia hasikera-hasikeratik dago alkartearen eta gainontzeko irakasleak be oso gustura dagoz gugaz; eta gu geu be eurokaz.

Zein da euskal folkloreaken egoera? Zelan lango ekarpena egiten deusazue zuek?

Sasoi onean dago, nire ustez. Antxina beste

“Instrumentu bat ikastea ez da bakarrik klasera joan eta apur bat jotea; kulturea zabalduetea be bada”

“Jaietan-eta gure instrumentuak egotea normala dala konturatu behar da jentea”

txistulari ez dago, beharbada, baina gero eta trikitixa eta txalaparta gehiago ikusten dira kalean, edo bertsolari partidea... Gure beharra euskal folklorea jenteari hurbildu eta herrian errotuta da, eta bideak zabaldu instrumenturen bat jotan ikasi gura dabenei.

Zuena bezalako beste alkarterik ez dago Txorierrin; Bertoko be ez bazan...

Pare bat trikitixa egongo ziran, baina ez zan gaur egun dagoan girorik egongo. Zamudion onartuta dogu jaietan-eta trikitixea, panderoa eta abarrekoak izan behar dirala; normaltzat dogu. Eta horretaz hain zuzen be konturatu behar da jentea orokorrean: festetan gure instrumentuak egotea normala dala. Eta instrumentuok txorierritarrok jotea be normala dala.

Alkartearen alde onak?

Ikasle asko dogu instrumentuak ikasten eta jotan. Era berean, gazteenek talde-kontzientzia hartutea lortu dogu, eta ardurea hartzea be lortu dogu.

Erronkarik?

Ez, baina aspaldi honetan gatzago dogu jotan urtetea. Guk diru-kopuru bat kobratuten dogu joteagaitik, eta instituzinoei gero eta zehetasun ekonomiko gehiago emon behar deutseguz: zenbat kobratu dogun, zelan banatu dogun, zenbat gastatu dogun... Eta horrek oztopatu egiten dau gure beharra. Izan be, gu kultura alkartea gara eta ez dogu irabazteko asmorik; ezta galtzeko asmorik be ez. Eta holan jokatuta, galdu egiten dogu... Dana dala, laguntza jasoten dogu Zamudioko Udaletik eta eskertuten deusagu.

Egitasmo barriak aurrera eroateko asmorik?

Ez, jente asko daukagu alkartean eta gure helburua hori mantendutea izan behar da. Behar nahikoa!

LOREGARTE

LABORATORIO DE JARDIM EUSKAL

Elaboración y venta de productos hortícolas y florales de calidad.

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.loregarte.com

FLORES BEGONIA

FLORISTERIA

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.floresbegonia.com

MAIEN

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.maien.com

Camiseria Charcuteria

IMAZ

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.imaz.com

Mascolas Maider

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.mascolasmaider.com

WAFETEGIA

IAZI

JATETREA

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.wafetegia.com

MIGUEL

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.miguel.com

MARMOLCINTZA

GOYO

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.marmolcintza.com

IMPORTACION ETA

KALIMATA

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.kalimata.com

Immobilien

ETORI

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.ettori.com

multiprecio

Rakel

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.rakel.com

elcizalde

En venta

En venta: Flores, Jarridos y Jardines.

TEL: 945 404 200 - Fax: 945 404 201

www.elcizalde.com

Errebaleko jauregia



Goian: Armarria Goikoolako dorrean ikusi daiteke. Zugasti sendiaren erakusgarria da. Eskuman: Errebaleko Jauregia, Pedro Sarrikolearen etxea. Bere suhia Domingok ondorengo legez erabili eban. Atea da dagoan errenazimendu garaiko elementu bakarra.



Hordoño Zamudio eta Zugastiarrak jabetza ugari ebazan Larrabetzun eta Zamudion XVI. gizaldiaren bigarren erdialdean. XV. gizaldian Larrabetzuko Paskoala Martin Inigetz Zugasti Bizkaiko alkatearen alaba Hordoño Zamudiokoagaz ezkondu eta ondorengo Juan Zamudio eta Zugasti izan eben. Haren semea, Hordoño Zamudio eta Zugasti, Franziska Matiaritu eta Getxogaz ezkondu zan 16 urte ebazala. Aitatu beharra dago urte berean, 1549an, Hordoño honen ama, Leonor, Diego Perez Matiaritu aitagarrebakideagaz ezkondu zala, biak alargunak ziran-eta. Baina Hordoñok harremanak izan ebazan ordurako Mari Saez Goikooleatarragaz eta ondorioz, alaba Petronila jaio zan. Mari Saez Inigo Loroñotarragaz esposatu eben, baina Petronila Zamudio-Zugasti leinukoa legez agertuko zan ordutik hona.

Petronila Pedro Sarrikoleatarragaz ezkondu eta alaba bat eduki eben: Antonia Sarrikolea eta Zamudio-Zugasti. Antonia

Domingo Holea eta Sarrikoleagaz ezkondu zan. Azken honen ondorengo bat Domingo Sarrikolea eta Zamudio-Zugasti izan zan, zeina Sevillan hil baitzan hango merkatarien ganbarako priore ibili ostean.

Goikoolako dorrean dagoan Zugastitarren armarria batze honetatik aterako geunke. Gure eritxiz, Errebaleko Jauregia Pedro Sarrikoleatarrak altxatu eban, eta Petronilak ezkonsari erakargarria izan ei eban beragaz esposatzeko. Batzetik aurrera, bat eginda agertuko dira Goikoolako dorrea eta Errebaleko Jauregia.


Sarrikoleatarraren boterea

Pedro Sarrikoleatarrak menpean izan ei eban herria. Garai hartan alkate berak agintaldi bat baino ezin eban bete eta Pedrok bi egin ebazan. Auzitara eroan eta kargua itxi behar izan eban; halanda be, Domingo suhia alkate izendatzea lortu eban eta hori gehienetan kanpoan ibiltzen zanez, alkateorde ibili zan.

Beste alde batetik, nahiko eskandalagarriak izan ziran alargun zala Larrabetzuko zenbait anderegaz euki ebazan harremanak be bai. Alkatetza aprobetxatuz, erremate gabe emon eutsen Urkuluko errota-aren alokairua bere amoranteari, eta behin lagunakaz gaupasa ederra ospatu eban beste andereategaz semea euki ebanean. Pertsonaia boteretsua izan zan, beraz, XVI. gizaldiaren amaieratik eta XVII. gizaldiaren hasierara bitartean Larrabetzuko jasan behar izan ebana. Bere ondorengoek luze eroan eben Zamudio-Zugasti abizena, eta Arrigorriagako Agirre eta Ribas leinuagaz bat egin ondoren oraindik ere handikiago bihurtu ziran.

Larrabetzuko Errebaleko Jauregia gain behera etorri zan eta aurretik be hainbat barrikuntza egin eutsezan. Barriro altxatu eta puntu erdiko atea da kontserbatu dan errenazimendu garaiko elementu bakarra.

Testua eta irudiak: Sabin Arana



Zelula eta DNAr**i** buruz

Birusik txikiena zein munduko izakirik handiena izan (iritzi guztiak bat etorri ez arren, Oregoneko *Armillaria ostoyae* onddo erraldoia omen da handiena, 600 hektarea hartzera hel baitaiteke), oinarri-oinarrian guztiok darabilgu funtzionamendu sistema berdina. Gure informazio genetikoa zelulen DNAn dago kodifikatuta (birusen kasuan, RNAn dago batzuetan. Baina, bizirik daude birusak? Galdera polita, hurrengo baterako), eta zelula bakoitzak han irakurtzen du bere zereginak ondo betetzeko behar duen informazioa. Hau da, globulu zuri baten eta neurona baten DNAn informazio berdina bada- go ere, neuronak badaki zein informazio zati erabili behar duen, eta hori baino ez du erabiliko, gainera. Globulu zuriak, berdin.

Zelula bakoitzean entziklopedia osoa dugula esan daiteke. Baina neuronak "A" atala baino ez daki irakurtzen; eta globulu zuriak "B" atala (uf!, konplikatua da hau, neurona eta globulu zuri mota pilo bat baitaude. Baina ideiarene bat egiteko...).

Zelula amak (*stem cells*, ingelesez; eta *células madre* gaztelaniaz) nahiko famatu egin dira azken urteotan. Eta normala da,

“Gure informazio genetikoa zelulen DNAn dago kodifikatuta, eta zelula bakoitzak han irakurtzen du bere zereginak ondo betetzeko behar duen informazioa”

hareek erabilita garatzen gabiltzan teknikek ate berria zabaldu baitiote medikuntzari. Tratamendu gehienak esperimentu fasean badaude ere, itxaropentsu agertzen dira ikertzaileak, eraginkorrak izan baitaiteke hainbat gaixotasuni aurre egiteko edo, behintzat, arintzeko. Besteak beste, hauek aipa ditzakegu gaixotasun horien artean: parkinsona, 1 motako diabetes melitusa eta bihotz gutxiegitasunak.

Zelula amak

Baina zein da zelula hauen berezitasuna? Zelula amak izaki baten berezko edozein zelula mota ekoitz dezaketen zelulak dira. Zelula horiek ere dute lehen aipatutako entziklopedia, baina edozein atal irakurtzeko gai dira. Ondorioz, eta nahi izanez gero, edozein zelula ekoitz dezakete bikoizten direnean jarraitzen duten mitosi prozesuan: neurona, gihar zelula, globulu zuria... edozein.

CIC Biogunek koordina-
tzen duen ikerketa batean, adibi-
dez, zelula ametatik abiatuta saiatuko
dira parkinsonak gaixotzen dituen neurona
dopaminergikoak lortzen. Ez da behar erra-
za, eta ezin dugu jakin zenbat denbora eta
esperimentu beharko diren, zabaltzeko
moduko emaitzak lortzeko.

Testua: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria.

[illegible]

King
Landmark
LANDART APATZGARRIA
Calle 15 • 04 54 9956 66 11 • 15 de Mayo 15
(Antes Chama/Parque)



100% American Made
Distilled under strict
government supervision



Bottled in 100% Grain
Neutrals 40% to 50%
Imported from Sweden

LOTERIA LEZAMA

Reserva
LITRO: 1000 ml
1-57

Servicio
Sustentable

Compartidos: 1000 ml
Módulo: 1000 ml

Reserva, compartidos
Sustentable, 1000 ml

Loteria: 1000 ml (1000 ml) en reserva, 1000 ml (1000 ml)

On egin restaurant

Realizemul în România al unui concept
care îmbină cu grație tradiția americană
cu gusturile actuale.

Peisaj de oraș din LA în fundal

Imagile sunt de exclusivitate. 94 455 63

GOYO-GOYO LOJHIZUN
 Өмөтүбүзүбүзү
 Өгү өгү
 Өгү өгү өгү

Сүлүмүзү
 18 00 00 00
 18 00 00 00
 18 00 00 00

Laboa eta Yupanqui: Txoriaren azken hegaldia (eta II)

Psikoterapeuta askoren helburua, aldaketaren bat sortzea da, ahal baldin bada onerako, jakina. Horretarako, pazientearen berezko baliabideak sustatu behar dira. Hortaz, bezeroari mezu eraginkorrak helarazi behar zaizkio. Gogoz sinetsiko dituen mezuak izan behar dira; edo, gutxienez, pazientearengan ate bat zabaltzeko gai izango direnak. Nik hainbat ahots eramaten ditut terapiaren testuingurura: Perls, Freud, Osho, Bowlby, Kundera, Ortega eta abar. Hori bai, musika eta istorioak elkartu eta horrek duen magia aprobetxatzerakoa, bi maisu izan ditut: Yupanqui eta Laboa.

Atahualpa Yupanqui («urrutiko lurraldeetatik datorren kontalaria», ketxuaz): Hector Roberto Chavero Aranburu izena jarri zioten gurasoek (aita argentinarra zuen eta ama euskalduna). Zaldi artean jaio eta hezi zen. Entzun zuen lehen musika eztenaren soinua izan zen. Yupanquik eztena gauaren ispilua dela zioen; izarrek, zaldiaren gainean zihoala, zilarrezko eztenetan islatzen ziren keinuak eginez. Atahualparentzat zaldiak

sinbologia berezia zuen, gizakiaren ikuspegia erabat aldatzen baita zaldiaren gainean. Atahualpak gitarrarekin, eta bere ahots gogor eta sakonarekin kon-



tatzen zituen naturarekin bat egiten zuten gizasemeen historiak. Landu zituen gaiak gizakia eta natura izan ziren; behin eta berriz, maisuki azaldu zituen bizitzak gizakiari aurrean jartzen dizkion arazoei aurre egiteko moduak eta esperientziak.

Pasaian 1934an jaioetako Mikel Laboa euskal kulturako autore handienetakoa da. Nire ustez, bera da atzoko eta gaurko garaia ongien ulertu eta uztartu dituen. Sarrionaindia, Atxaga, Artze eta Bertolt Brecht idazleen hitzak kantatu izan ditu sarri. *Gaztetasuna eta zahartasuna, Zure begiek, Antzinako bihotz, Amonatxo, Ez nau izutzen negu hurbilak, Gure hitzak, Ihesa zilegi balitz, Izarren hautsa, Oroitzen zaitudanean ama, Langile baten galderak liburu baten aurrean eta, nola ez, Txoria txori*, abesti ahaztezinak dira, belaunaldiz belaunaldi bizirik mantenduko direnak. Laboak behin baino gehiagotan aitortu du Yupankiren eragin sakona; aipatu beharra dago, elkarrekin jotzeko aukera ere izan zutela, Donibane Lohitzunen, hain zuzen ere.

Yupanquik eta Laboak gizasemeari erlijioarekin, espirituarekin, gizartearekin eta naturarekin harremana berreskuratzeko aukera ematen diote. Orintsu, gurasoekin

harreman arazoak zituen nerabe baten terapia prozesuan, *Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak* Laboaren abestia erabili nuen. Hona hemen, berak, egun batzuk beranduago, idatzitako *Zerua eskuetan* olerkia:

*Zerua eskuetan
izartxoak kaiolan,
elurra poltsikoan
tamalez urtzen joanen da,
zerua eskuetan
izartxoak kaiolan,
lurraren azpian,
aterpea aurkitu dut.
Kontatzea nahi dizuet
oso ederra dela
zeruari so eginez maitatzea,
harria eta egurra izan ziren nire sorlekuak
ez dut inoiz ez ahaztuko, nondik natorren.
Haizea hegoaldean
mendia iparraldean,
itsasoaren gesala
nik nahi dut dastatu
Ama hegoaldean
aita iparraldean,
bizitzaren gesala
nik nahi dut dastatu
Kontatzea nahi dizuet
oso ederra dela
zeruari so eginez maitatzea,
bailara eta mendia izan ziren ere nire sorlekuak
ez dut inoiz ez ahaztuko, nondik natorren.*


Mikel Laboaren abestia bion arteko higararren ahotsa izan zen. Bion artean sortutako giroak, gaztearen barru aldeko sentsazioak, ideiak... azaltzeko sormena sustatu zuen. Argi dago terapia ez zela hor amaitu, baina, zer edo zer mugitu zen bere baitan, eta hori bilatzen ari nintzen, besterik ez.

Testua: Alexander Muela, psikoterapeuta, eta Pospolin



■ Zamudio

Daturik ez dogu, argazkia Zamudion egin zala baino ez dakigu. Data, leku zehatza edo baten bat ezagutzen badozu jakinarazo. Zelan? 944523447 telefono-zenbakira deituz, aikortxori@aikor.com helbidera idatziz edo www.aikor.com > txokoak > Atxinako argazkiak atalean erantzuna itxiz.



“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzailea eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

Aurreko
erantzuna:

Karmele Derio
Pampina

Irabazlea:
Maite Barrueta



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi lagunentzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

**Nortzuek irabazi
dute Sondikako
frontenis txapelketa ?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue)

Bakoren bazterra

Zu lehenago



Iñaki Suarez,
sumillerra

“Lagundu baino, ardoak nabarmendu egiten du. Ardo onak gaintitzen du platera, jatekoa ospakizun bihurtzen du. Ardoa afariaren jai-giroa da, nire ustez, gosariaren magia; eta animatu egiten du jendea. Gidaritzat dut neure burua, hitzak duen zentzu bikotzean, eta beti saiatzen naiz hori kontuan hartzen ardoren bat gomendatzeko orduan”.

Hala hitz egin du Luis García aktore frantsesak ardo eta sommelier lanbi-deari buruz. García sommelier baten papera egiten du *Zu lehenago* Frantziako komedian. Filma Pierre Salvadorik zuzendu du eta Luis Garcíaekin batera Daniel Auteuil aktore zoragarriak

–nire uste apalean– egiten du lan. Auteuilek luxuzko jatetxe frantses bateko maitrearen papera egiten du eta jatetxe horixe da, hain zuzen ere, onberatasun eta solidaritatez betetako komedia erromantikoaren eszenatokietako bat.

Urteari hasiera emateko, eta Gabonen biharamuna oraindik dugula, film hori ikusteko gonbidapena egiten dizuet, eta lasaitasun apur bat eta irribarrea konpartitu. Filmak jatetxearen eguneroko mugimendua aurkezten digu, baita istorio erromantiko bat ere. Gosea egingo dugu, agian, Maite Lekerika kidearen menu zoragarriak prestatu eta dastatzeko. Eta horiek zuen sommelier aikor! lagunaren amets enopatikoeekin uztartuko ditugu, beharbada.

2009. urtea fresko, fruta-gustuarekin, indarrarekin eta bizitzaz beteta has dadila, ardo gazteak bezala; eta heldu amai dadila, konplexu, biribil eta orekatu, ardo onen moduan. On egin.



Zu lehenago filmea

Etxeko sukaldaritza



Maite Lekerika,
sukaldaria


Patatak saltsa berdean

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo eta erdiko lebatza (freskoa edo izoztua)
- Kilo bat patata
- 6 berakatz atal
- Idar lata txiki bat
- Perrexila
- Oliba-olio txorrostada bat
- 4 arrautza (gura bada)
- Ura eta gatza

Prestatzeko area:

Berakatzak kazola baten prijiduko doguz. Apur bat gorritzen diranean, patatak gehituko doguz (zurituta eta zirkulutan ebakita). Ura, gatza eta perrexila bota eta su motelean 15 minutuan iminiko dogu egosten. Lebatza eta iderrak gehitu eta beste bost minutuan eukiko dogu surtan. Saltsea apur bat loditzen danean, eta gustukoa izanez gero, arrautzak botako doguz. Kazolea estali eta beste minutu baten izango dogu surtan.



Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Eta Guernica margota du Picassok

A. Serres

Azken anaia

N. Appanah

Munduko zazpi herrialdetako ipuinak

J. Sarrionaindia

HAUR ETA GAZTE

Bataklon eta karamelo sorgina

K. Tototika

Ameliak txakur bat nahi du

T. Bowley

Matxalen barnetegian

P. Le Gall

Fairy Oak 2. iluntasunaren lilura

E. Gnone

MUSIKA

Zuhaitz okerretan gora noa

R. Rueda

Herriaren ohia

Hesian

Laino guztien gainetik

Gatibu



Gatibu taldea

DENBORA PASA

LETRAZOPA

E	O	L	S	G	F	E	U	M	A	R	R	E
G	Z	A	Ñ	S	E	P	E	X	O	T	D	S
J	A	X	E	R	R	A	P	U	E	L	Ñ	M
Y	Z	S	B	L	A	O	K	B	D	F	A	G
O	T	E	A	T	I	U	D	Y	Z	U	R	R
M	N	B	N	A	R	N	S	H	K	I	B	F
I	A	T	N	B	H	B	A	M	A	G	U	P
H	R	K	G	T	M	F	R	Z	X	P	S	L
U	R	J	D	J	Ñ	L	A	X	T	J	T	O
N	O	H	K	I	A	N	T	Y	M	N	O	F
I	L	E	Ñ	D	Z	I	Z	L	Y	N	A	K
L	E	I	X	A	R	R	A	H	J	Z	Ñ	M

B	Z	U	I	R	T	E	U	K	S	E	P	S
Z	U	B	Ñ	F	E	Z	L	Y	O	K	J	O
D	Y	L	X	A	S	J	F	P	A	J	L	R
B	E	S	A	P	E	A	H	I	F	O	K	B
D	X	I	D	R	S	R	G	A	H	K	I	A
B	D	B	Y	E	R	E	T	M	G	H	G	L
H	A	J	Ñ	K	S	A	L	O	R	U	L	D
E	F	B	R	S	G	E	P	I	K	I	H	E
A	G	T	F	Y	J	K	L	N	B	B	L	A
Ñ	U	E	N	T	T	N	P	X	N	U	M	N
X	P	A	R	T	E	A	K	O	D	N	K	P
O	U	Z	N	X	S	E	M	R	M	N	M	U


la gai zaren 7 baso landare edo zuhaitz aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dagozela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 77. zenbakiaren erantzuna.

Gorputzean ditugun 7 atalen izenak.

EUSKAL HERRIEN 4. GENERAZIOA



Antzerkia eta filmak

Derio:

–Ezker-Eskuma antzezlan. Otsailaren 20an, 20:30ean, Gurea Aretoan. Sarrerak: 7 euro; etxebizitza eta informazio-bulegoan salgai.

Erakusketak

Sondika

–Inauteriak Sondikan, 1996-1997, otsailaren 2tik 27ra, erakusketa aretoan.

Derio

–Derio Bilbotik desanexioaren 25 urte. Denboraren makina. Urtarrilaren 30etik otsailaren 1era arte, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Sollube kalean.

Zamudio

–Argazki ikastaroko ikasleen argazkiak. Otsailaren 14ra arte, Zamudiotorren.

Hitzaldiak

Larrabetzu

–Dependentzia legea. Otsailaren 24an, Gure Etxean.

Ikastaroak

Larrabetzu

–Okela eta bere transformazioa. Otsailaren 16tik 20era, doan.

Irteerak

Sondika

–Baldezkaraira, snow egitera. Izena ematea: otsailaren 9tik 15era, gaztetxean; irteera: martxoaren 14an.

–Armintza-Gorliz, Gorondagane GEK-k antolatuta. Otsailaren 22an, 09:15an, eskolan.

Zamudio

–Sasimartxo: Sabino Arana plaza-Santimami, Arroeta Mendi Taldeak antolatuta. Otsailaren 15ean, 09:00etan, plazan. Hamaiketako, ermitan.

–Benidormera. Izena ematea: otsailaren 2tik 20era, udaletxean; bidaia: apirilaren 17tik 30era.

Lezama

–Palomares. Otsailaren 8an, Gailur mendi taldeak antolatuta.

–Arantzazu. Otsailaren 22an, Zorribike taldeak antolatuta.

Kirolak

Derio

–Auto klasikoen II. Proba. Otsailaren 7an, 10:00etan, eta otsailaren 8an, 11:00etan, kiroldegian.

Lezama

–Kiroldegiko Nagusien IV. Eskupilota Txapelketa. Izena ematea: otsailaren 13tik 28ra; txapelketa: martxoan.

Tailerrak

Lezama

–Joaldunaren kapela eta pailazo artikulatua, ludotekan.

–Musika tailerra. Otsailaren 27an, 19:00etan, ludotekan.

Larrabetzu

–Zume ikastaroa. Otsailaren 17an eta 24an eta martxoaren 3an.

Bestelakoak

Sondika

–Oinarrizko informatika ikastaroa. Izena ematea: otsailaren 9tik 13ra, liburutegian; ikastaroa: martxoaren 9tik 30era.

–Uretako sorospen ikastaroa. Izena ematea: otsailaren 16tik 20ra liburutegian; ikastaroa: martxoaren 28tik maiatzaren 10era.

Zamudio

–Santa Ageda bezpera. Otsailaren 4an.

–Pazko jaiak antolatzeko batzarra. Otsailaren 10ean, 19:30ean, udaletxean.

–Herriarrek egindako iradokizunei erantzutea. Otsailaren 11an, 19:00etan, Agirre gelan. Iradokizun orriak bertan eskuragai.

–Hezkuntza proiektuen berri. Otsailaren 6an, 16:30ean, eskolan.



nexis
Digital Marketing & Communication



GALAIS
Digital Marketing & Communication



GARAIOLTZA, S.A.
DIGITAL MARKETING & COMMUNICATION

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKATUNTZA-LOKALAK ETA GARAIAK


LEHEN MAILAKO MERKATUNTZAK, LEHENIK HANIHAKI

ORDAINTZEKO DUAZTASUN ILANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Udako Kalea, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...



...malla handiko teknologiarekin.

[illegible]www.jstor.org/stable/2345678

6050

Industria de Turbos Propulsores S.A.

SHIADE

zure bizitza diseinatu

4.000

artikulu

kostaprezioan

4 lagunentzako sofa

575€



beherapena
70%
ra arte



45€

larru limitaziozko
aulkia

Doaneko
finantzaketa
dendan galdetu

Estilo handiko altzarien zentroa

www.shiade.com

Loiu

Txarleri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90

Barakaldo

Karcaga, 100-Pab.15
Tel. 94 404 41 41

Galdakao

Leheaga, 1
Tel. 94 457 19 90